

GIZA ESKUBIDE GEHIAGO ETA ESKUIN-MUTUR GUTXIAGO

Azken urteotan, agerikoa da eskuin-muturra hedatzen ari dela, eta hori apurka-apurka gertatzeak ez du esan nahi kezkarria ez denik. Joera hori ez da Espainiako estatuan bakarrik ikusten; izan ere, ekainaren 9ko azken Europako hauteskundeen arabera, Europan, 4 diputatutik bat eskuin-muturrekoa da. Munduan, eskuin-muturreko liderrak nabarmendu egin dira zenbait herrialdetan, hala nola Argentinan, Brasilen eta Ameriketako Estatu Batuetan.

Eskuin-muturreko taldeek populismoa, nazionalismoa, xenofobia, kontserbadurismoa, autoritarismoa eta pluralismoaren gaitzespena uztartu eta nahasi egiten dituzte. Baina badute ezaugarri komun bat: eskuin-muturrak defendatzen dituen politikak urratu egiten dituzte hamarkada askoan giza eskubideetan, justizian eta elkartasunean lortutako gizarte- eta ingurumen-aurrerapenak. Politika errepresiboak eta gorroto-diskurtsoak bultzatzen dituzte etnia-, erlijio- edo genero-gaietan, bai eta sexu-aniztasunaren aurka ere, eta, besteak beste, intolerantzia- eta indarkeria-giroa sustatzen dute, eta giza eskubideak sistematikoki urratzen dituzte. Gainera, eskuin-muturraren argudioak, normalean, gezurretan eta faltsukerietan oinarritzen dira, tentsioak sortzen dituzte gizartean eta herritarren polarizazio eragiten dute. Jokabide horrek demokrazia arriskuan jartzen du eta oso kaltegarria da gizarte-kohesiorako.

Era berean, mugimendu horien gorakadak eragin negatibo nabarmenak ditu pobrezia eta desberdintasunen aurkako borrokan. Eskuin-muturreko alderdiek sustatutako politiketan, austeritatea, pribatizazioak eta gizarte-zerbitzuen murrizketak bultzatzen dira. Politika horiek kaltegarriak dira gizarte-sektore ahulentzat, eta aberatsen eta pobreen arteko arrakala handitzen dute. Bestetik, etnia- eta arraza-aniztasuna arbuiazen dute. Haien argudioak migratzaile edo errefuxiatuekiko mesfidantzan oinarritzen dira. Eskuin-muturrekoek gizatasuna kentzen diete talde horiei eta gizarteko gaitz guztien errua egozten diete. Konponbide errazak proposatzen dituzte arazo konplexuetarako, arazoetan sakondu gabe eta arazoek kausak aintzat hartu gabe.

Laburbilduz, eskuin-muturraren gorakada mehatxu handia da munduko ekitaterako, justiziarako eta giza eskubideetarako, eta askatasunak eta demokrazia arriskuan jartzen ditu. Errealitate horren aurrean, Zero Pobrezia Donostia Plataformak honako hau proposatzen du:

- Desinformazioari eta buloei aurre egiteko tresnak ematea herritarrei, haiek zabaltzen lagundu ez dezaten. Haurtzarotik trebetasunak garatzen eta tresnak eskuratzen laguntzea, pertsonak ongizate kolektiboaren, giza eskubideen eta justizia sozialaren aldeko kontzientzia kritikoa izan dezaten.
- Beldurrari informazioarekin aurre egitea. Eskuin-muturraren gorakadaren eta gizartean barneratzen ari diren diskurtso estigmatizatzaile eta diskriminatzaileen arriskuaz eta eraginaz jabetzea. Izan ere, bere burua eskuin-muturrekotzat ez duten pertsonak ere diskurtso horiek bere egitera iristen dira.
- Pertsona guztien giza eskubideen alde mobilizatzea, eta erakundeei eskubide horiek bermatzeko beharrezko neurriak har ditzatela exijitzea. Eskuin-muturra ez zuzitzea, eta osasun-hesiak ezartzea hura isolatzeko eta geldiarazteko.

Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, gizarte-erakundeok dei egiten diogu gizarteari, eskuin-muturraren eta haren politiken kontra mobilizatzeke, giza eskubideak arriskuan jartzen dituztelako eta pobrezia eta desberdintasunak areagotzen dituztelako.